

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Ezinbestekoa iruditzen zaigu bezeroekin dugun harremana salerosketa ekintzatik haratago joatea, horretarako saldu osteko hainbat zerbitzu eskainiz, bezeroen fidelizazioa lortu eta mantentzeko. Gure lehentasuna erosleei esperientzia on bat eskaintzea da, eta beraz nolabaiteko arazoak suertatuz gero konponbideak proposatzeko gai izango ginateke hainbat modu erabiliz.

Sare sozialak, publizitate erremintak izateaz gain, egokiak dira horretarako. Gure produktuekin, sortutako diseinu berriekin, gure filosofiarekin zein planteatzen dugun estetikarekin erlazionatutako edukiak publikatuko ditugu aplikazio desberdinetan, eta horietako iruzkinak zabalik egongo dira bezeroen iritziak ezagutu eta erantzuteko. DM edo zuzeneko mezuen zerbitzua ere erabilgarri dago uneoro, norbaitek modu pribatuan auziren bat eztabaidatu nahi izanez gero. Horrela, iritziak kontuan izanik, eskaintzen dugun zerbitzua hobetuz joango gara.

Jarraitzaileak lortzeko influencerrekin egingo ditugun kanpainak garrantzi handia izango dute, beraien jarraitzaileak gure kontuetara bideratuz. Horretarako zorro bana bidaliko diegu (ordainsariaz gain) beraiek story edo Tiktok motzen bidez produktua erakutsi eta promozionatu dezaten. Instagramen mota askotako edukiak publikatuko ditugu, adibidez, zorroen diseinu estandarrak eta horien koloreekin erlazionatutako argazkiak, diseinu pertsonalizatudun zorroen argazkiak inspirazioa emateko, zozketak... Tiktoken, aldiz, gehienez minutu bateko bideo motzak argitaratuko ditugu paketatze prozesua erakutsiz eta bitartean produktuari edo enpresari buruzko bitxikerien inguruan hizketan arituz.

Bezeroek gure sare sozialak jarraitzeko gure erabiltzailea adieraziko diegu produktuen kaxetan. Erraz bilatzeko moduko izena izango dute gure

kontuek (@solargi aplikazio guztietan), eta hala nahi izanez gero helbide elektroniko bidez jakinarazpenak jasotzeko aukera zabalduko diegu erosleei. Hori webgunearen bitartez egin ahalko dute, eta bertan izena ematen dutenei bidaliko dizkiegu enpresaren inguruko eguneratzeak, deskontuak, etab. *newsletter* antzeko formatuan.

Gainera, webgunean bertan erreklamazioak egiteko aukera eskuragarri egongo da uneoro, eta bertan adieraziko dira baita ere enpresaren telefono zenbakia eta posta elektronikoa. Gutako bat beti egongo da telefonoa eta emailak erantzuteko prest, bezeroari ahalik eta esperientzia pertsonalizatu eta egokia emateko asmoarekin, oso garrantzitsua baita hori guretzat. Aukera horiek baliatuz bezeroekin komunikazioa mantenduko genuke, gure esku dagoen guztia eginez Solargik planteatzen duen esperientzia ahalik eta modu erosoenean aurrera eramateko, behin produktua erosita bezeroek izango lituzketen iritziei erreparatuz edota arazoak konponduz, baldin badaude.